



2019KO URRIAREN 17KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. (deialdiko 3. puntua) Mozioa, Josu Estarrona Elizondo EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, gazte-enpleguaren prekaritatearen ondorioz gazte-belaunaldi oso bat galtzeko arriskuaren aurrean Jaurlaritzaren asmoen inguruan. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00132]

EA-NV, EH Bildu eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

25/2019

- "1. Legebiltzarrak adierazten du oso kezagarria dela EAeko gazteen egungo emantzipazio-adina. Hortaz, Legebiltzarrak adierazten du ezinbestekoa dela emantzipaziorako politika publikoetan jauzi bat ematea eta neurriak hartzea, egun gazteek duten batez besteko emantzipazio adina aurreratzeko politikak martxan jarzte aldera.
2. 30 urtetik beherako soldata-arrakala murrizteko, horretan eragiten duten elementu eta joerak eraldatzeko eta, bereziki, emakumezko gazteen artean kalitatezko enplegua sortzeko, Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio lan-ildo berezitu bat sar dezala Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Eragilean.
3. Emantzipaziorako bi zutabe nagusiak enplegua eta etxebizitza izanik, Legebiltzarrak adierazten du lehentasunezkoa dela:
 - a) Egonkorra eta kalitatezkoa den enplegua sortzeko politikak garatzeaz gain, gazteen egiturazko prekarietateari aurre egitea, horretarako 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren helburu nagusien artean helburu hori txertatuz eta egun martxan dagoen Enplegu Plan Estrategikoan gazteei zuzendutako lan-ildoak indartzuz.

ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 17 DE OCTUBRE DE 2019

1. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Josu Estarrona Elizondo, parlamentario del grupo EH Bildu, sobre las intenciones del Gobierno Vasco para hacer frente al riesgo de perder toda una generación de jóvenes como consecuencia de la precariedad del empleo juvenil. [11\11\03\00\00132]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu y SV-ES.

25/2019

- "1. El Parlamento manifiesta que es muy preocupante la actual edad de emancipación de las personas jóvenes de la CAV. Por ello, el Parlamento considera imprescindible dar un salto en las políticas públicas para la emancipación y tomar medidas que pongan en marcha políticas orientadas a adelantar la edad media de emancipación de la juventud de hoy en día.
2. Con el fin de reducir la brecha salarial de las personas menores de 30 años, transformar los elementos y las tendencias que inciden en ella y, especialmente, crear empleo de calidad entre las mujeres jóvenes, el Parlamento insta al Gobierno a que incluya una línea de trabajo en la Estrategia y Plan Operativo de Acción para Reducir la Brecha Salarial en Euskadi.
3. Dado que los dos pilares principales para la emancipación son el empleo y la vivienda, el Parlamento manifiesta que es prioritario:
 - a) Además de desarrollar políticas para la creación de empleo estable y de calidad, hacer frente a la precariedad estructural de las personas jóvenes, para lo que se incluirá ese objetivo entre los objetivos principales del Plan Estratégico de Empleo 2017-2020, y se fortalecerán las líneas de trabajo dirigidas a la juventud en el Plan Estratégico de Empleo que hoy está en marcha.





b) Etxebizitza politika esanguratsu eta iraunkorra izatea, indarrean dagoen EAEko Etxebizitza Legeak zein horren inguruko araubide guztiak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatzea, eta gaur egun baino bitarteko gehiago erabilgarri izatea. Horrekin batera, Legebiltzarrak Jaurlaritzari hurrengo neurri hauek indarrean jar ditzala eskatzen dio:

- Gaztelagun programa moldatzea, baldintzak aldatuta helmena askoz handiagoa izan dadin.
- Alokairurako etxebizitza parke publikoa premia handitzea, eta bitartekaritza programen bidez kudeatzen diren alokairu mugatuko etxebizitza gehiago eskuratzea, hutsik dauden etxebizitzak programa hauetara erakartzea lortuz. Alokabidek kudeatuko lituzkeen alokairu mugatuko etxebizitza horiek gazteen emantzipazio beharrak asetzerantz bideratu beharko lirateke lehentasunez, hori bermatzeko baremazio-sistema egoki bat aplikatuz.
- Gazteen behar espezifikoak kontuan izango dituzten etxebizitza-tipologia edo elkarbizitza-eredu berriak (etxebizitza komunitarioak, etxebizitza kooperatiboak, besteak beste) sustatzea, aztertzen diren proposamen guztietan gazteen parte-hartzea ahalbidetuko delarik".

b) Que la política de vivienda sea significativa y duradera, que aproveche todas las oportunidades que ofrece la Ley de Vivienda de la CAV vigente y la normativa relativa a la vivienda, y que tenga más recursos disponibles que en la actualidad. Asimismo, el Parlamento insta al Gobierno a que ponga en vigor las siguientes medidas:

- Modificación del programa Gaztelagun para que cambiando los requisitos su alcance sea mucho mayor.
- Ampliación urgente del parque público de vivienda de alquiler, y mayor adquisición de viviendas de alquiler limitado que se gestionan por medio de programas de intermediación, para conseguir atraer viviendas vacías a estos programas. Esas viviendas de alquiler limitado, que gestionaría Alokabide, deberían destinarse, prioritariamente, a satisfacer las necesidades de emancipación de las personas jóvenes, aplicando un sistema de baremación adecuado que lo garantice.
- Promover tipologías de vivienda o nuevos modelos de convivencia (viviendas comunitarias, viviendas cooperativas, entre otros) que tengan en cuenta las necesidades específicas de las personas jóvenes, haciendo posible la participación de las personas jóvenes en todas las propuestas que se estudien".





2. Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, gizarte-ekonomiaren euskal itun baterako lanari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\11\03\00\00110]

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

26/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, ekimen hau onartzen denetik hasita, abiaraz ditzala sailartekoa izango den gizarte-ekonomiaren plan estrategiko bat ontzera bideratutako lanak, plan hori garatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ezarrita, Euskadiko gizarte-ekonomia sustatze aldera.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskal estrategia hori ondu dadila gizarte-ekonomiako eragile guztien parte-hartze zuzen eta aktiboarekin, euskal ekonomiaren sektore horren eskakizun eta beharrei erantzuteko moduan.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailari eskatzen dio ezen, hiru hilabeteko epean, egin eta bidal dezala Eusko Legebiltzarrera txosten bat, Gizarte-ekonomiari buruzko komunikazioaren kariatara 2018ko ekainaren 4an izandako eztabaida parlamentarioaren esparruan onarturiko ebazpenen betetze-mailari eta haiek betetze aldera hartutako neurriei buruz".

2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa al trabajo por un pacto vasco de la economía social.
[11\11\03\00\00110]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

26/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a partir de la aprobación de esta iniciativa, inicie los trabajos dirigidos a elaborar un plan estratégico de economía social, de carácter interdepartamental, implementando los recursos económicos necesarios para su desarrollo, todo ello para el impulso de la economía social de Euskadi.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que la citada estrategia vasca se elabore con la participación directa y activa de todos los agentes de la economía social, de modo que responda a las demandas y necesidades de este sector de la economía vasca.
3. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco a que en el plazo de 3 meses elabore y envíe al Parlamento Vasco un informe sobre el grado de cumplimiento y las medidas adoptadas a tal fin de las resoluciones aprobadas el 4 de junio de 2018 en el marco del debate parlamentario en torno a la Comunicación sobre la economía social".





3. (deialdiko 1. puntua) EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde parlamentarioek egindako lege-proposamena, euskal memoria historikoari buruz. Aintzat hartzeari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\09\02\02\00040]

Aintzat hartzea ezetsi egin da.

3. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva en relación con la toma en consideración de la proposición de ley formulada por los grupos parlamentarios EH Bildu y Elkarrekin Podemos, de memoria histórica vasca. [11\09\02\02\00040]

Rechazada la toma en consideración.





4. Mozioa, José Ramón Becerra Carollo
Elkarrekin Podemos taldeko
legebiltzarkideak aurkeztua, Basque
Country Logistic strategiari buruz.
Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\11\03\00\00137]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketaren
bozketetan berdinketa izanda, hurrengo osoko
bilkuran erabakiko da.

4. Debate y resolución definitiva de la
moción presentada por D. José Ramón
Becerra Carollo, parlamentario del grupo
Elkarrekin Podemos, relativa a la
estrategia Basque Country Logistic.
[11\11\03\00\00137]

Producido empate en las votaciones de la
enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y
SV-ES, queda pendiente para una próxima
sesión plenaria.





5. (berria) Adierazpen instituzionala, Landa-Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta. [11\11\05\00\00070]

Onetsia.

"Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak, 2007ko abenduaren 18ko 62/136 Ebazpenean, erabaki zuen urriaren 15ean, urtero, Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzea, aitortzeko 'landa-eremuko emakumeak, emakume indigenak barne, nekazaritzaren eta landa-ingurunearen garapena sustatzeko, elikagaien segurtasuna hobetzeko eta landa-pobrezia desagerrarazteko duen eginkizun eta ekarpen erabakigarria'.

Landa-eremuko emakumeak munduko biztanleriaren herena baino gehiago dira, eta planetako nekazaritzako eskulanaren % 43, eta, gainera, gure herrien elikadura bermatzeko eta biztanleentzat baldintza duinak ziurtatzeko erronkak partekatzen dituzte, eta naturaguneak eta gure ondare historiko eta kulturala babesteko bermea dira.

Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Egun honetan, garrantzitsua da aitortzea eta ikusaraztea berebiziko garrantzia dutela herrien sostengu eta garapen ekonomiko eta sozialean, eta funtsezko ekarpena egiten diotela garapen jasangarriari, elikagaien segurtasunari, tradizioak mantendu eta eguneratzeari eta tradizio horiek bizirik irauarazteari. Ezinbestekoa da emakumeak kontuan hartzea landa-etorkizuna bermatzeko.

Ezinbestekoa da, halaber, ahotsa altxatzen jarraitzea, landa-eremuko emakumeek pairatzen dituzten desberdintasunak eta aukera-falta salatzen jarraitzeko, argi eta garbi agerian uzteko benetako aukera-berdintasuna ez dela posible izango, harik eta gure herrien aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturean duten funtsezko balioa eta eginkizuna benetan onartzen dugun arte.

Hori dela eta, ezinbestekoa da apustu irmoa egiten jarraitzea arlo sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan landa-eremuko emakumeen lidergoa sustatuko duten neurriak bultzatu eta garatzearen alde, emakume horiek etxeetan, enpreetan, gizarteetan eta politikan erabakitzeke ahalmen handiagoa izan dezaten.

5. (nuevo) Declaración institucional con motivo del Día Internacional de la Mujer Rural. [11\11\05\00\00070]

Aprobada.

"La Asamblea General de la ONU, en su Resolución 62/136, de 18 de diciembre de 2007, determinó que cada 15 de octubre se celebrara el Día Internacional de la Mujer Rural, con el objeto de reconocer 'la función y contribución decisivas de la mujer rural, incluida la mujer indígena, en la promoción del desarrollo agrícola y rural, la mejora de la seguridad alimentaria y la erradicación de la pobreza rural'.

La mujer rural representa más de un tercio de la población mundial y el 43 % de la mano de obra agrícola del planeta, además de compartir los retos de garantizar la alimentación de nuestros pueblos y asegurar condiciones dignas para sus habitantes, y suponen la garantía para conseguir la preservación de los espacios naturales y de nuestro patrimonio histórico y cultural.

En este Día Internacional de la Mujer Rural es importante reconocer y visibilizar el papel vital que desempeñan en el sostenimiento y desarrollo económico y social de los pueblos, y su fundamental contribución al desarrollo sostenible, a la seguridad alimentaria, al mantenimiento y actualización de las tradiciones y a su supervivencia. Contar con las mujeres para garantizar el futuro rural resulta imprescindible.

Lo mismo que resulta imprescindible seguir alzando la voz para continuar denunciando las desigualdades y la falta de oportunidades que sufren las mujeres rurales, para evidenciar alto y claro que la igualdad real de oportunidades no será posible hasta que asumamos, de manera efectiva, el valor y el papel fundamental que juegan en el progreso social, económico y cultural de nuestros pueblos.

Por eso, resulta imprescindible que sigamos apostando con decisión por fomentar y desarrollar medidas que impulsen el liderazgo de las mujeres rurales en los ámbitos social, cultural, económico y político, con el objetivo de que posean un mayor poder de decisión en los hogares, en las empresas, en la sociedad y en la política.





Landa-eremuko emakumea funtsezko ardatza da landa-eremuko despoblazioa eta zahartzea geldiarazteko, eta, horretarako, beharrezkoa da emakumeei eta haien familiei aukerak eskaintzea eta erronka garrantzitsuei aurre egitea, hala nola diren emakumeen langabeziari amaiera ematea, nekazaritzako genero-arrakala desagerraraztea, baldintza berdinetan lan egitea bermatzea, emakumeen lidergoa sustatzea eta landa-ingurunea zerbitzu gehiagoz hornitzea.

Bat egiten dugu Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Egun honekin, euskal gizartearen sozialki minoritarioa den lurralde bateko desberdintasun-arazoaz jabetu dadin, eta lurperatuta denbora gehiegi egon den arazo bati buruzko kontzientzia soziala handitzeko helburu atzeraezinarekin".

La mujer rural es el eje fundamental para frenar la despoblación y el envejecimiento del mundo rural, y para ello resulta necesario ofrecer oportunidades a las mujeres y sus familias y afrontar retos importantes como acabar con el desempleo femenino, romper la brecha de género en la agricultura, garantizar trabajos en igualdad de condiciones, promover el liderazgo femenino y dotar de más servicios al medio rural.

Nos sumamos a este Día Internacional de la Mujer Rural con el objetivo de que la sociedad vasca sea consciente de un problema de desigualdad en un territorio socialmente minoritario, y con la finalidad –que no requiere más esperas– de incrementar la conciencia social sobre un problema que ha estado demasiado tiempo soterrado".

